







Energiaren kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin azaroan kontsumitutako elektrizitatea %6,2 jaitsi da aurreko urtekoarekin alderatuz gero, eta urteko metatuari dagokionez %2,4 murriztu da. Eraikinen sektoreak %2,8 egin du behera eta industriak berriz, %8,9.

Etxebizitzaren sektorean, elektrizitate kontsumoa %3,3 murriztu da eta zerbitzuena %2,5. Tren bidezko garraioak aldiz %19,6 igo du kontsumoa azaroan.

Siderurgia sektorearen kontsumoak %7,6 egin du behera, eta hau kontuan hartu barik industriaren kontsumoa %9,7 murriztu da. Azken honen barruan gora egin dute beira sektoreak, %5 eta ibilgailuen sorkuntza sektoreak %4,3. Aldiz gainontzeko sektore gehienak kontsumoa murriztu dute; burdinezkoa ez den metalurgia %52,8, zementu eta karearena %24,6 eta kautxo eta plastikoena %21,6.

Gas naturala







Azaroko gas naturalaren guztizko kontsumoak %15,6 egin du gora aurreko urteko azaroarekin alderatzen bada, eta urteko metatua %21,5 handiagoa izan da. Zentral termikoen kontsumoari dagokionez, 2018ko azaroakoa baino %87,7 handiagoa izan da, gainerako sektoreak egonkor mantendu dira (%0,2).

Erregaiak garraioan

2019ko urrian, EAEn, garraioen erregaien kontsumoa %3,1 murriztu zen aurreko urtekoarekin alderatuz eta urteko metatuak ere behera egin zuen (-%1,4).

Epe berean, A gasolioaren kontsumoak %4,2ko beherakada izan du eta gasolinak aldiz, %6,6 egin dute gora.

Iturriak: EEEn lanketa, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.



Nazioarteko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

2019ko azaroan, munduko petrolioaren kontsumoa egunean ia 102 milioi kupelekoa izan zen, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuz %1 handiagoa.

Epe berean, Txinak %3,6 hazi zuen bere kontsumoa 14,8 Mbpd arte. AEBek %1,9 handitu zuen bere kontsumoa, 21 Mbpd gaindituz eta Europar Batasunak, bere kontsumoa mantendu zuen 14,9 Mbpd-tan.







Munduan, azken 12 hilabeteen hileroko batez besteko kontsumoak 100 Mbpd ingurukoa izaten jarraitzen du.

Gas naturalaren kontsumoa munduan

OCDEko herrialdeetan, 2019ko irailean, 125 bcm (milaka milioi m³) inguru kontsumitu ziren. Kontsumo hau aurreko urtekoarekin alderatuz %4,5 handiagoa izan zen. Azken 12 hilabeteen hileroko batez bestekoa 149 bcm izan zen.

OCDEko zonalde geografikoen arabera, aurreko urteko irailarekin erkatuta; Amerikan %4,4, Asia-Ozeanian %5,6 eta European %3,9 igo zen gas naturalaren kontsumoa. Urteko kontsumo metatuari dagokionez, Amerikan %2,6 European %2,8 eta Asia-Ozeanian %3,8 hazi ziren, besteak beste.

Iturriak: AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.



Energiaren kontsumoa Espainian

Energia elektrikoa

Espainian urrian, elektrizitatearen kontsumoak 2018ko urrian izandakoaren maila bera mantendu zuen, aldiz urteko metatua %1,7 baxuagoa izan zen.

Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2019ko urrian berriztagarrien partaidetza %51ra iritsi da, sorkuntza eolikoak %34a asetu duelarik. Gainerako sorkuntza, erregai fosilak (%33) eta nuklearraren (%16) bitartez asetu da.

Gas naturala



2019ko azaroan, Espainian, gas naturalaren guztizko kontsumoak %4,1 egin du gora, 2018koarekin konparatuta. Zentral termikoaren kontsumoa aurreko urteko azarokoa baino %18,6 altuagoa izan da, gainerako kontsumoak mantendu direlarik (%0,2).

Erregaiak garraioan

Espainian, errepideko garraioaren erregaien kontsumoak goranzko joera izan du 2014. urteaz geroztik. Urrian kontsumoak %2,2 egin zuen gora aurreko urteko hilabetearekin alderatuz eta urteko metatuak berriz %0,9.

Erregai motaren arabera 2019ko urrian, gasolina kontsumoak %6,6 egin du gora aurreko urteko hilabetearekin alderatuz eta A gasolioak %1,2.

Iturriak: REE, ENAGAS eta CORESen datuetan oinarrituta.



Energiaren prezioak

Petrolioaren prezioa
Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 62,7\$ (56,8€) izan zen azaroan.

Elektrizitatearen prezioa
Espainian, eguneroko merkatuan, elektrizitatearen prezioa 42,2 €/MWh izan zen azaroan, aurreko urtearekin alderatuz %12,1 baxuagoa.




Gas naturalaren prezioa
Holandako TTF delakoa, erreferentziazko batez besteko prezioa europar merkatuan, 14,4€/MWh izan zen azaroan; Espainiako MIBGASena 13,4 €/MWh-koa izan zen azaroan eta Alemaniako EGIX M+1arena 15,6€/MWh.







Nazioarteko merkatuetan, urrian, Henry Hub deritzona, 9 €/MWh-ra iritsi zen, eta prezioa Japonian 17 €/MWh-ra igo zen.

Erregaien prezioa
2019ko azaroko gasolioaren prezioa 1,25€/l izan zen Euskadin eta gasolinarena, berriz, 1,33 €/l-tan mantendu zen.

CO₂-aren prezioa
CO₂-aren europar baimenak 24,3 €/t-ko balioa lortu zuen urrian.

Iturriak: EIA, OMIE, Pownext, MIBGAS, Japoniako Ekonomia Ministerio, EEX eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.





Elektrizitatearen ekoizpena Europan

Espainia

Espanian, sorkuntza elektrikoak, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs urte hezea).

2019ko irailan, energia berriztagarrien parte hartzea %32,6koa izan da, energia eolikoarena %18koa izan delarik. Gainontzeko sorkuntza, energia nuklearrak (%23) eta erregai fosilek (%44) osatzen dute. Azken honetan, ikatzaren adierazgarritasuna %3,2koa izan da irailan.

Frantzia

2019ko sorkuntza elektrikoak Frantzian, aurreko urteko egitura mantentzen du; funtsean, energia nuklearrean oinarritzen da (%71), erregai fosilek gora egin dute %10a asetu dutelarik eta berriztagarrien ekarpena %19koa izan da abuztuan.

Alemania

Alemanian, elektrizitate sorkuntzan, berriztagarrien ekarpena %43koa izan da irailan, erregai fosilen bidezko sorkuntza %44koa eta nuklearraren partaidetza %13koa.

Erregai fosiletan, azpimarratzekoa da ikatzaren partaidetza irailan %30 izan zela eta maila apalagoan bada ere, gas naturalarena %15.

Iturriak: AIE-ren datuetan oinarrituta.